


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,8 igo dira 2020ko abenduan aurreko hilaren aldean

2019ko abenduarekin alderatuta, kostuak % 0,9 igo dira

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea % 0,8 igo da 2020ko abenduan, aurreko hilaren, 2020ko azaroaren, aldean. Urte arteko terminoetan, 2020ko abenduan 2019ko abenduaren gainean, kostuak % 0,9 igo dira.

Aurreko hilabetearen aldean lehengaien kostuak % 1,0 igo dira, eta eskulanaren kostuak ez du, ordea, aldaketarik izan (% 0,0).

**Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-
arteko aldakuntza-tasa. (%)**



Abenduan, Etxegintzaren azpisektoreak % 0,8ko hil arteko gehikuntza izan du bere lehengaien kostuan, eta Obra Zibilaren azpisektoreak % 1,8koa. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 1,1 igo dira, eta Obra Zibilekoak, berriz, % 1,0 jaitsi.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioari dagokionez, 2019ko abendutik 2020ko abendura hazkunde handienak izan dituztenen artean, nabarmentzekoak dira honako sektore hauek: *Material elektronikoa* (% 5,2), *Metalurgia* (% 2,4) eta *Material elektrikoa* (% 1,5). Aldiz, prezioetan jaitsierekin hauek nabarmentzen dira: *Petrolioia fintzea* (% 20,5eko jaitsierarekin), *Makineria* (% 3,2 behera) eta *Energia elektrikoa eta gasa* (% 2,9 behera).

**EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA.
ALDAKUNTZA TASAK (p). 2020ko Abendua**

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	106,2	0,8	0,9
Eraikinak	106,4	0,6	1,2
Obra zibila	105,5	1,4	-0,4
LEHENGAI	105,6	1,0	0,7
Eraikinak	105,8	0,8	1,1
Obra zibila	104,7	1,8	-1,0
LAN-ESKUA	108,2	0,0	1,8

Oinarria 2015=100
(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62